



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2010-06-15

VIII. URTEA 2.027. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Abaltzisketarrei eman diete lekukoa Altzoko Eskolako ikasleek

ALTZO Eskola Txikien Festak izandako harrerarekin «oso gustura» daude Imaz Bertsolaria Eskolako arduradunak

2011 Datorren urtean ere eskualdean izango da jaia; iaz Berrobin izan zen eta 2011n Abaltzisketan izango da 4



Jende asko gerturatu zen herenegu Altzora Eskola Txikien Festan parte hartzeko. HITZA

Ostiralean izango dira Hitza Txapelketaren hurrengo partidak

PILOTA Albizturren, Alegian, Bidegoianen eta Tolosan izango dira norgehiagokak 6



Kultur Etxeko aurkezpena. A. IMAZ

Antzerki tailerrekoen emanaldia, ostiralean

TOLOSA '3 sombreros de copa' lana eskainiko dute 7

Igerilekuetara joateko eskaintza ugari landu dituzte

LEITZA Gaur zabalduko dute igerilekuen denboraldia; asteen zehar arratsaldean joan ahalko da eta asteburuetan egun osoan zehar 3



Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

Entzuleak zutik Donostiako Orfeoia entzunda

Alegia » Larunbat iluntzean eskaini zuten kontzertua Txintxarri abesbatzaren 50. urteurrenaren harira.

ERREDAKZIOA

Joan den larunbatean iluntzeko zortziak inguruan ireki zituzten Alegiako Joan Bataiatzailea Deunaren elizako ateak eta berehala bete ziren elizako eserlekuak. Ez zen gutxiagorako, izan ere, Txintxarri abesbatzaren 50. urteurrenaren harira antolatutako kontzertua benetan berezia izan zen, Donostiako Orfeoia izan baitzen Alegian.

Eliza txiki geratu zen eta azken orduan sartu zirenek zutik entzun behar izan zuten kontzertua. 450 bat entzule zenbatu zituzten Txintxarri abesbatzako antolatzaileek.

Eliza lepo beteta, eta aurrealdean punta puntako abesbatza. Aldarean ondo kokatutako irudi zuribeltzak handitasuna erakutsi zuten eta, harri duria eta zirrara eragin zuten taldeak. Espero zen bezala, emanaldi bikaina eskaini zuten Donostiako Orfeoia. Sekulako indarra, gozotasuna, kalitatea eta ahotsen batasuna erakutsi zuten kantariak kantatzeko orduan. Txalorik ez zen izan kantuen arte-



Kontzertu «hunkigarria» eskaini zuten Donostiako Orfeoia. HITZA

an, Orfeoia berak hala eskatuta. Errepertorio sakroa eskaini zuten Alegian. Musikagile ezagunen obrak kantatu zituzten; besteak beste, Mozart, Bach, Mendelssohn, Brahms, Haendel eta Aita Madinaren doinuak abestu zituzten.

Gerardo Rifonek lagundu zien organoan eta Jose Antonio Sainz Alfarak maisutasun handiz gidatu zuten 90 gizon-emakumez osatu-

tako taldea ordu t'erdi iraun zuten emanaldian. Emanaldiari hasiera emateko Aita Madinaren *Aita Gureak* entzulegoaren zentzuak esnatzea lortu zuten, abesti eder horrek dituen dinamika ezberdinak direla medio. Kontzertua aurrera joan ahala beste hainbat une zoragarri izan ziren: bereziki ederra izan zen Javier Busto hodarribitarraren *Ave Maria* eta Mendelssohn-en *Salmo n° 43* abestietan

Orfeoia lortu zuten sonoritateak. Bere ahotsek Alegiako elizakobazter eta zoko guztiak bete zituzten. Bukarako Haendelen *Alleluia* eta bere handitasunak bukaera bikaina eman zion egitarau ofizialari. Opari modura, Webber-en *Pie Jesu* pieza ederra eta hain gurea den *Agur Jaunak* abestu zituzten. Amaierarik gabeko txalo zaparradak eskaini zizkioten 90 ahotsez osatutako abesbatzari. Gustura entzuleak eta gustura kantariak ere, entzule gogotsuak hurbil sentitu zituztelako.

Txintxarri abesbatzaren esker ona

Alegiako Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak, ere berean oroi-garri bat eskaini zion Donostiako Orfeoia. Jon Aizpurua abesbatzako kantariak eginiko eskulan bat eman zion Garbiñe Orbegozo alegiarren zuzendariak Orfeoiko zuzendariari. Azpeitiko Elena Orbegozo artistak Txintxarri abesbatzaren 50. urteurrenarako eginiko logoaren egurrezko taila bat ere eman zioten.

Gogoratu behar da Txintxarri abesbatzako koruaren sorrera gogian izan zuela kontzertuaren hasieran; 2010. urtera iristeko koruaren hasierako kantarien lana, esfortzuak eta ilusioak koruaren bilakaeran izan duen eragina na-

barmendu zutelarik. Aipamen berezia egin zieten Txintxarri abesbatzak izan dituen bi zuzendariak, Joxe Gastesiri eta Garbiñe Orbegozori, alegia.

Abesbatzak eskerrak eman zizkien urteurren honetarako propio diru-laguntza eman duten Alegialdeko lantegi, saltoki, erakunde eta entitateei.

Horiek horrela, entzuleen artean laguntza eman dutenen logotipoak zituzten esku orri batzuk banatu zituzten. Gainera, bereziki eskertu zuten abesbatzaren jardueran laguntzen duten Alegiako Udala eta herriko parrokia.

Larunbateko kontzertuari dagokionez, abesbatzak esker hitzak izan zituen baita Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat ere, izan ere Orfeoia Diputazioarekin duen hitzarmen bati esker abestu zuten donostiarrek. Bukarera, Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak bazkideak eta koruaren bituko jarraitzaileak gogoan izan zituzten.

Afaria Txintxarri jatetxean

Gaueko bederatzi t'erdietan lanak amaitu ostean, Donostiako Orfeoiko 90 kideek afari legea egin zuten herriko Txintxarri jatetxean.

Kontzertuaz gain, afaria ere Txintxarri abesbatzak antolatu zuten, eta giro onean egon ziren kantariak.

Gutunak

Tolosaldeko alderdi politikoei eskari bat

Hasiak dira datozten hauteskunde- inguruan mugimenduak, zurmurrak, zaratak eta zalapartak. Hauen karietara, eskaera bat egin nahi nieke Tolosaldeko alderdi guztiei, baina aurrez Euskal Herriaren euskararen inguruan hainbat

arlotan bizitzen ari garen egoeraz gogoeta labor bat egingo dute:

Lehenik eta behin, irakaskuntza maila datokit burura: Hiru hamarkada pasa dira A, B eta D eredu martxan jarri zirenetik, eta B ereduaren eta batez ere, A ereduaren porrota nabaria izan da hasierako momentutik; A ereduaren eskolatuak izan diren ia haur guztiak eta B ereduaren eskolatuak gehienak euskara maila minimo irortu gabe geratu dira. Beste modu batera esanda: urte horietan eskolatu diren haurren erdiak euskara ikasi gabe ateratu dira eskolatik.

Zer gertatuko litzateke gaztelanian maila minimo bat lortu gabe ikasleen erdiak eskolatik aterako balira? Ba... gutako askorentzat euskarak gaztelaniak adineko balioa du gure Herriaren eta planteamenduen hori ez da onargarria. Eta orain, aurrera pauso bat eman dugu: eskola eleanitzaren legea ezarri da. Lehen haurrak euskalduntzeko nahiko oztopo ez eta orain handiagoak jarri ditu legegileak. Lege hau ezarri duen ardudunari, hartu dituen neurrietan sinesten duela adierazteko, proposamen bat egingo nioke: DBHko ikasketak bukaerarako presta dezala froga parekide bana gaztelaniarentzat eta euskararentzat, zei-

nak gainditzea ezinbestekoa izango den Batxilergora pasatzeko.

Eta irakaskuntzaren arloan jarraituz, zer esan EHUko hainbeste eta hainbeste irakasle euskararen arrastorik ez duenean? Zenbaterainoko begirunea agertzen dute Herri honetako hizkuntzetako bat erabat bazterturik uzten dutenean?

Administrazioko beste erakunde eta lanpostuei dagokionez, badirudi soldatak ordaintzen dituzten herrikideen zerbitzurako egiten direla aukeraketak.

Eta herrikoideek bi hizkuntza ofizialetatik nahi dutenean artatuak izateko eskubidea dute. Garbi dago, hautaketa horietan gaztelaniaz artatuak izatea nahi dutenen eskubideak babesturik gelditzen direla. Baina gure artean badaude hiritarak, euskaraz bakarrik artatuak izatea nahi dutenak. Horien eskubideak bermaturik gelditzen dira? Kasu asko eta askotan inola ere ez. Arlo pribatuz begirada bat botata, gure begiak enpresa mundura zuzen ditzakegu. Enpresa pribatuak, pribatua den neurrian, hizkuntza arloan nahi duen jarraia eduki dezake, legeak beste zer-bait eskatzen ez dion bitartean, behintzat. Eta noski, gure kasuan, legeak ezer gutxi eskatzen dio eta

orduan, zoritzarrez, kasu gehiengotik, euskaraz beste mundu batekoak balitz bezala tratatzen dute. Badaukigu gure Herriaren bizitzan zeregin garrantzitsu bat betetzen duela, baina ekonomia eta ongi izatea beste arlo askorekin lotua dago eta euskararekin ere bai.

Beraz, desiragarria litzateke euskararen arazoa berea bezala onartzea. Gaur egungo jarrerak baikorregiak izaten ez digu gehiegi laguntzen. Egiten diren lanpostu eskaintza gehienak erdara hutsean egiten dira. Hautaketak giteko elkarrizketak, hizkuntza bakarretakoak izaten dira: gaztelaniaz.

Beste hizkuntzak baloratzerakoan euskaraz existituko ez balitz bezala da; aurretik doaz, nola ez, ingelera, frantsesa, errusiera, korearra...

Administrazioak ez al du horretan inolako ardurarik? Hala ere, aitortu beharra dago bestelako joera agertzen duten enpresak ere badiorela, etagero eta gehiago direla. Zeregin handia dute mundu horren aldaketa bultzatzen.

Eta azkenik, politika mundura joaten bagara, zer esan gure erakundeak eta ordezkariak buruz? Gure ordezkariak dira; euskaraz bizi nahi dugunok ere bai; horregatik beren erantzukizuna han-

diagoa da eta beren funtzioan eredu izatearen osagai bat dago. Eta zein da errealitatea? Jaurlaritza osatzen duten gehienek, Legebiltzararen zati handi batek, hiriburuetako eta hiri handi askotako alkateek eskaintzen duten irudia ez da oso suspergarria. Zer inbidia ematen duten Kataluniako eta Galiziako politikariek hitz egiten entzuten ditugunear!

Baina ez gaitzek pentsamendu ilunetan eta ezkorretan murgilduta bizi eta egoera honetatik atera gaitzekela sinetsi behar dugu. Euskararen normalizazioa etxetik abiatuta eragin beharko dugu. Eta nire herritartasunean oinarrituta, hemen kokatzen dute izenburuan aipatzen nuen eskaria: Tolosaldeko Alderdi politikoa guztiei, beren hautagai guztiak lebidun orekatuak izan daitezkeen eskatzera zabalitzen joan dadin.

Gure udaletxe guztiak euskaldundak behar ditugu: burura begira, hiritarrei begira... Eta hortik aurrera etengabe egin beharko dalan Euskal Herria euskararen herria izatera iritsi dadin.

Emeterio Zaldibia. Tolosa.

TOLOSALDEKO UDALA



IRAGARKIA

2010ko ekainaren 10ean izandako Osoko Bilkuran, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin 2010-2011 ikasturteko Ordenantza Fiskalok eta eranskinak aldatzea erabaki zuten. Hartutako akordioak Udaletxeko iragarki taulan ageri dira 30 egun abiletan zehar, iragarki hau G.A.O. ageritu eta hurrengo egun abiletik hasita. Epe honetan, 11/1989 Arau Foralak 17. artikuluan aipatzen dituen interesdunek espedienteo aztertu ahal izango dute eta egokitzat jo dituzten erreklamazioak aurkeztu. Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta erreklamaziorik edo oharrik ez badago, hartutako erabakia behin betikoa izango dira eta ez da beste erabakirik behar.

Tolosa, 2010ko ekainaren 11an
ALKATEA



Joan den astean aurkeztu zuten 'Herri bat, bi kontinente' izeneko liburua. HITZA

Gastuei eutsi ahal izateko ikerlan bat eskatu du Udalak

Ibarra » Hiru urteko epean zergarik gabeko epea mantentzea du helburu; hainbat artisten lanekin liburua ere argitaratu du.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak ikerlan bateskatu du egoera ekonomiko «komplexuaren» aurrean gastuari eusteko. Izan ere, egoera ekonomiko zailak Udalei ere eragiten diela kontutan izanda, Ibarrako Udalak Betean Auditoria enpresari esleitu dio udal gastua bi edo hiru urtez eusteko neurriak aztertuko dituen ikerlan bat burutzeko kontratua. Helburua «aurrezteari lehentasuna ematen dioen finantza-politika bat lortzea da, beti ere gizarte arreta kaltetu gabe».

«Azken urtetako ekonomiaren garapen negatibo orokorrak erakunde ezberdinak derrigortu ditu porrot ez egiten saiatzeko erabakiak hartzeraz», eta Ibarrako Udala ez da egoera horretatik kanpo geratu. Zergarik gabeko kontu publikoek eraginkortasunez egin diete aurrera egoera zail honi, baina Udalak ezinbestekotzat jotzen du datoen urteetan gerta daitezkeen aldaketetara prestatzea, horrela etorkizuneko arriskuei erantzuteko trebatuko litzatekeelako.

Hori dela eta, ikerlan bat eskatu du lehenik eta behin, Udal kontuen gaur egungo egoera ekonomikoa definitzeko eta Ibarraren ezaugarri berdinak dituzten beste udalerri batzuekin alderatzeko. Oinarri honetatik abiatuta, ikerlanak ekonomizatzen lagunduko duten proposamen multzo bat bilduko du diru-sarrerara eta gastuak parekatzeko helburuarekin.

Aztertuko diren alderdiak, Udalak eskaintzen dituen zerbitzu ezberdinei dagozkie eta helburua bere funtzioak egoera ekonomikora egokitzeta da, horrek, «inola ere, Udalak eskaintzen duen gizarte arretaren kaltetzea eragin gabe».

Ekuador eta Ibarrako artisten lanak bat eginda

Txelo Romeo Ibarrako alkateak eta Itziar Jauregi Euskara eta Hezkuntza zinegotziak *Herri bat, bi kontinente* izeneko liburua aurkeztu dute. Bertan, Ibarra bizi diren hainbat artisten lanak biltzen dira. Nahiz eta denak ibartarrak izan, horietako batzuek Ekuadorreko jatorrikoak dira. Alkatearen hitzetan, «lan honek kultura aldarrikatzen du herrien arteko lotura bezala eta bi udalerri hauen idiosinkrasia ulertzen laguntzen du».

Herri bat, bi kontinente Eusko Jaurlaritzako Euskara departamentuak, Kutxak eta Ibarrako Udalak finantzatu izan da. Hau, bi udalerrien anaitze programaren baitan sustatu da. Aurkezpenean Ibarrako Kutxako zuzendaria eta euskal Ibarra eta Ekuadorko Ibarrako gizarte ordezkapen bat egon zen. Ekitaldian zehar, Txelo Romeo alkateak adierazi zuen «liburu honek kulturari merezi duen balioa ematen diola eta mesedetu egiten duela anaituta dauden bi herri hauen arteko lotura estuagoa izatea».

Romeoren hitzetan «kultura gizatasun osoari dagokion ondarea da eta beste errealitate batzuetara gerturatzeko aukera ematen digu, nahiz eta geografikoki urrun egon. Adierazpen artistikoen bidez ezagutu egin ditzakegu eta baita guregandik gertuago sentitu». Honez gain, lankidetzan aritu diren artisten ekarpenak eta lan hau errealtate bihurtu dadin egin den ahalegina» eskertu nahi izan zuen Ibarrako alkateak.

Bestetik, Itziar Jauregi Euskara eta Hezkuntza zinegotziak azpimarratu zuen «kultura bakoitzak berezkoak dituen ezaugarriak maite eta lantzen baditu ere, beste batzuen presentzia aitortzen duela eta hauek dituzten gauza onak jaso, zalantzarik egin gabe». Zinegotziak esan zuen «ezin dugula ahaztu bertakoa ulertezina dela kanpokoa gabe».

Gaur arratsaldetik aurrera zabalik da Udal Igerilekua

Leitza » Astelehenera 15:00etatik 20:00etara egongo da irekita, eta asteburuetan, egun osoan; ikastaroak ere badaude.

ERREDAKZIOA

Eguraldiari erreparatu gero, itxura ez badu ere, hondartza eta igerilekuan demboraldia jada zabalik da. Hori dela eta, gaur arratsaldetik, irekita daude Leitza igerilekuak. Ohiko ordutegiari jarraituz, asteleheneratik ostiralera, 15:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eta asteburutan, 11:00etatik 20:00etara.

Oraingo honetan, igerilekura joan nahi dutenek, alde batetik, egun bateko sarrera erosita egin dezakete, bestetik, 10 egunetarako abonua aterata, eta azkenik, uda guztiko abonua eskuratuta. Horretarako, interesatuak Leitza edozein banketxetara joan daitezke, eta bertan, adina eta bazkide diren edo ez zehaztuta, abonua erosi. Bertan jasotako errezioba gero, igerilekuan erakutsi beharko dute, eta han, txartel bat egingo diete. Sarreraren prezioa desberdina izango da egunaren eta adinaren arabera.

Udalen, kirol ikastaroak

Datorren hilabeterako zenbait kirol ikastaro ere antolatuta dituzte



Eguraldi goibelarekin hasi dute demboraldia igerilekuek. E. EZEIZA

Leitza: patinajea, multikirolak, futbola eta tenisa. Asteleheneratik ostiralera izango dira saioak, eta adinaren arabera, ordutegia aldatuko da.

Izena emateko epea gaur amaitzen da. Bazkide direnek, bi asteko saioengatik 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek, 25. Hilabetekoa berriz, bazkideek 30, eta besteek, 20 gehiago. Bestalde, familia ugariak eta aktibitate bat baino gehiagotan izena ematen dutenek, %5eko deskontua izango dute. Informazio gehiago nahi duenak 948 51 719 telefonora deituta lor dezake, baita kiroldegira gerturatuta ere.

» SARREREN PREZIOAK

2010 urteko abonua

■ **Haurrak (5 urtetik 13ra)**. Bazkideek 18,30 euro eta gainontzekoek 22,85.

■ **Gazteak (14 urtetik 17ra)**. 28,50 euro bazkideek eta besteek 34,20.

■ **Helduak (18 urtetik 64ra)**. 53,70 euro bazkideek, eta gainontzekoek 61,70.

■ **65 urtetik gorakoak**. 28,50 euro bazkideek, eta gainontzekoek 34,20.

■ **Abono familiarra**. 113,90 euro bazkideek, eta gainontzekoek 125,55.



Musikari txiki handiak Anoetan

KULTURA » Anoetako Ikastolan, Loatzoko Musika Eskola-ko ikasleek jotako doinuak entzun ahal izan ziren atzo arratsaldean. Ikasturte amaierako kontzertua eskaini zuten musikari txikiak. Gaur berriz, Villabona eta Alegian eskainiko dituzte emanaldiak. Lehendabizikoa

Musika Eskolan izango da eta bigarrenean Kultur Etxean 19:00etan. Bihar Villabonako Zinemaren, 18:30ean, beste emanaldi batez gozatzeko aukera izango da. Azkenik, Adunako txanda izango da, ostegunean. Elizan, 18:30ean izango da saioa. € €

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40



Imaz Bertsolaria Eskolako ikasleek eta herritarrek 'Lehen txiki ginen ia handi gara' abestia aurkeztu zuten. HITZA



Altzokoek 'Bok-Espok' dantzatu zuten eta Abaltzisketakoek Txantxo dantza. HITZA



Gipuzkoatik eta Bizkaitik etorri ziren Eskola Txikietako ikasleak. SARA GOMEZ

Eskola Txikien Festa handia

Altzo » Eguraldia lagun izan zuten iragarpenak bestelakoak baziren ere. Jendearen parte hartzearekin oso gustura daude altzoarrak.

AGURTZANE BELAUNZARAN

Eguna gris eta goibel esnatu bazen ere, Altzoko plazan eta kaleetan, giro ona protagonista izan zen igandean, Eskola Txikien Festan. «Eguraldiarekin kezkatuta geunden, baina eutsi egin zion egun guztian zehar. Oraindik zenbat jende etorri den zehazterik ez dugu, baina festak izan zuten harrearekin oso gustura gaude, txorarraren» azaldu du Mikel Olanok, Santilazpi Guraso Elkarteko le-

hendakariak. Atzo herriari betiko itxura ematen ari ziren; karpak, agertokia... bildu eta egunerokotasunera itzuli nahian. Beti ere, urtebeteko lanak utzi duen emaitza onaren pozarekin.

Ekitaldi berezi eta hunkigarriak
Altzoko eskolako umeek eman zieten hasiera festari. Bertsoka kantatuz, Eskola Txiki guztiak gonbidatu zituzten oholntza gainera. Baita, Zubieta, Larraul eta

Itziaroko eskolak ere. Oholtza gainean zegoen, horma gorria kendu eta eskola txiki bateko teilatu bihurtu zuten. Herri hauek eskatzen duten eskola irudikatu nahi izan zuten.

Herritar guztiak oholntza gainera igo ziren momentua hunkigarria izan zen. *Lehen txiki ginenak ia handi gara askoz handiago zu batzen bazara...* abestu zuten. Egunduz guztian zehar, Altzoko bozgorailuetatik entzun zen abestia.

Altzoko pertsonaia ospetsuena ere festaren lekuko izan nahi zuen. Erraldoia, Manuela astoa eta bere lagun, Pello Errota, Imaz bertolaria, Jauregiko Txanbolin eta Asteasuko itsuarekin agertu zen pla-

zan. Oholtzara igo eta bertsoak eskaini zizkien bertan bildutakoek. Gero astoa eta gurdia ere herrian paseatu zuten eta bertso paperak saldu zituzten.

Eguerdian, Altzoko neskek, Kepa Junkeraren *Bok-Espok* musika dantzatu zuten, ondoren, Abaltzisketako txanda izan zen. Hauek, Txantxo dantzaren emanaldi polita eskaini zuten. Amaieran, Altzok lekukoa eman zion Abaltzisketari. Bazkalorduan, «pilolalekua eta karpak jendez lepo» bete zirela aipatu dute antolatzaileek. Arratsaldean, Pirritzek eta Porrotzek eskaini zuten emanaldia, arrakastatsua izan zen. Eskolako ume, irakasle eta gurasoak

oholtza gainera igo eta Euskal Herriko sudur gorri ezagunenekin abestu eta dantzatu egin zuten. Erromeria eta bertsolarien txandak eman zien amaiera festari. Bertsolariak, herriko tabernako balkoitik aritu ziren. Festa amaitu eta berehala «zaparrada ikaragarria» bota zuela azaldu dute antolatzaileek. Eguraldia ere lagun izan zuten Eskola Txikiak.

Gipuzkoako eta Bizkaiko txoko ezberdinetatik Altzora hurbildu zirenek egun zoragarria pasa zuten txikitasunean handi direla erakutsiz. Darroren urtean, Abaltzisketan errepikatuko da aldarrikapena, XXIII. Eskola Txikien Festarekin.



Pasa berri diren herriko festetako argazkia. Pilotari gazteak, Periko Peñagarikano herriko alkatearekin. HITZA

2010-2011 ikasturterako dantza eta pilota eskaintza

Anoeta » Pilotan edota dantzan ikasi nahi duenak, aste honetan, hilaren 18a baino lehen izena eman beharko du.

ENERITZ MAIZ

Aurtengo ikasturtea oraindik amaitu ez bada ere, Anoetan dagoeneko 2010-2011 ikasturtera begirako eskaintza zabaldu dute herriko Pilota Eskolak eta Dantza Taldeak.

Dagoeneko, hortaz, 2010-2011 ikasturterako Udala Pilota Eskolan eta Dantza Taldean parte hartu nahi duenak izena emateko aukera du. Interesa duenak hilaren 18a baino lehen udaletxean edota Kirolegian eman beharko du izena.

Udal Pilota Eskola

Maila ezberdinetan banatuko dituzte ikasleak adinaren arabera; aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak, infantilak eta kadeteak. Luzatzen duten eskaintza ikas-

turte osorako da eta kasu guztietan 50,64 euro ordaindu beharko da. Eskolak asteazken eta ostiraletan izango dira eta urria proba gisara hartuko dute, hortik aurrera pilotan jarraitu nahi ez duenak uzteko aukera izango duelarik. Kasu horretan ez zaio kobratuko.

Aurrebenjaminen artean, lehen hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak daude. Astean behin 45 minutuko saioa egingo dute eta pilotaren hastapena egingo dute joko ezberdinen bitartez, hau da, pilotaren ezaugarrien ezagutza jorratuko dute (botea, mugimendua, ibilbide ezberdinak...).

Benjaminen kasuan, lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailako egongo dira eta astean esku pilotako ordubeteko saioa izango dute.

» PILOTA ETA DANTZA

Izen ematea zabalik

- **Hilak 18, ostirala.** Izena emateko azken eguna da.
- **Non.** Kirolegian edota udaletxean.

Alebinen kasuan, lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak izango dira eta esku pilota eta pale-tako hastapena egingo dute astean ordubetez. Infantilen eta kadeteen kasuan, DBHko 1. eta 2. mailakoak eta 3. eta 4. mailako ikasleak ariko dira. Hauek, ordubeteko pilota saio bat egingo dute.

Dantza Eskola

Anoetako Dantza Taldeak, 2010-2011 ikasturteari begira izena emateko aukera ere zabaldu du. Dantzan egin nahi duenak bere txokoa izango du, hortaz. «Gazteen taldea, helduen taldea, mutilen taldea, haurren taldea, emanaldiak...», izango dituzte. Guztia, dantzatuz ongi pasatzeko helburuarekin egiten dutela ere argitu dute. Izena emateko aukera zabalik dago eta azken eguna ostirala izango da. Kirolegian edota udaletxean eman beharko da eta 2007. urtean jaiotakoetatik gora, edonork parte har dezake Dantza Taldean. Herritar guztiei animatzeko dei luzatzen diete.

Santio Jaiak 2010 iragartzeko kartel lehiaketa azken egunetan

Villabona » Lanak aurkezteko azken eguna hilak 18 ostirala da. Udala bulegoetan entregatu beharko dira.

E. MAIZ

Villabonako Udalak, 2010eko Santio Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa prestatu du. Kartela, uztailean ospatuko dituzten herriko jaietako

egitarauaren azala iragartzeko erabiliko da. Lehiaketa honetan, Villabonako edozeinek parte hartzeko aukera izango du.

Pintura, argazkia, collage... edozein modalitate erabiliz egin ahalko da kartela. Lehiaketaren gaia, Villabonako Santio Jaiak izango da eta ondorioz, aurkeztu diren lan guztiak *Villabona- Santio Jaiak-Uztaila 2010* testua idatzita eduki beharko dute. Kartelaren gutxieneko formatua, 18 x 24 zen-

timitrokoa izan beharko da. Lehiaketara aurkeztuko diren lanak, inoiz argitaratu gabeak izan beharko dira.

Lan guztien artean aukeraketa bat egingo dute eta epaimahaiak, lan bakarra sarituko du. 300 eurotako saria izango da irabazlearentzat. Parte hartu nahi duenak, lanak aurkezteko azken eguna, ekainak 18, ostirala, izango du. Udala bulegoetan entregatu beharko dira.

Pirritx eta Porrotx pailazoan emanaldia bihar 18:00etan Iruran

ERREDAKZIOA

Irurako Ikastolak, ikasturte amaierarako Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunen emanaldia prestatu du.

Herriko pilotalekuan izango da emanaldia bihar 18:00etatik aurrera, baina 17:00etan jarriko dituzte sarrerak salgai.

8 euro balio dute sarrerak eta horietatik 2 euro ikastolarentzat izango dira, izan ere ikuskizunarekin Ikastolarentzat dirua ateratzeko helburua ere badute.

Igandean Rincon de Belagua-Linzara ibilbidea egingo dute Aizkardikoek

ERREDAKZIOA

Rincon de Belagua-Linza ibilbidea egingo dute. Rincon de Belagutik abiatu eta La Pakizara igoko dira. Jarraian Hoya del Portillo de Larrara jaitsi eta Linzarako bidea hartuko dute. 23 kilometro inguruko ibilbidea da eta zazpi ordutan egitea aurreikusten dute. Izena emateko, osteguna baino lehen 649 71 71 82 telefonora deitu beharko da. Irteera, igandean 06:00etan egingo dute Olaederra kiroldegitik.

L Laburrak

Egañaren hitzaldia gaur 19:00etan Subijana Etxean

VILLABONA » Andoni Egaña bertso-lariak, ahozko komunikazioaren inguruan, hitzaldia emango du Subijana etxean. Villabonako eta Zizurkilgo Euskara Zerbitzuek antolatuko dute. Mintzalagunaren egitasmoa eta euskalduntze-alfabetatze ikastaroen ikasturte amaieran, bertako partaide guztien lana saritu nahian antolatuko dute. Edozein joan daiteke eta sarrera doakoa izango da.

Hiru langabetu behar dira ur sarea hobetzeko lanetan

ZIZURKIL » Zizurkilgo Udalak, San Migel inguruko euri-uren eta ur zikinaren sarea hobetzeko obrak kontratatu berri ditu. Lan horiek direla eta, esleitutako enpresak, Enplegu Zerbitzu Publikoetan izena emana duten hiru langile kontratatu behar ditu. Langabetuek, hilaren 18a baino lehen 943 29 25 43 enpresako telefonora deitu beharko dute.

Elbarrenako festetako kartel lehiaketa zabalik

ZIZURKIL » Elbarrenako festak irailen ospatuko dituzte eta jai horiek iragarriko dituen kartela lehiaketa bidez aukeratu dute. Edozeinek har dezake parte. Lana, DIN A4 tamainan aurkeztu behar da. Irabazleak jasoko duen saria 175 eurokoa izango da. Lau kolore erabili ahaliko dira eta teknika libre izango da. Kartelean *Zizurkilgo jaiak 2010. Irailak 8-9-10-11-12* testua agertu beharko da. Lanak aurkezteko azken eguna hilak 30, asteazkena izango da. Udala bulegoetan (Aurrera plaza, 3) edota Liburutegian.

Eskuratu liburua
ekainaren 30a
bitartean
12 euroren
truke.

BERRIaren
harpidedunentzat
eskaintza berezia:
6 €

Egin eskaera eta etxean jasoko duzu
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

AUKERA EZAZU,
BIZI EUSKARAZ
berria

E Emaitzak

PILOTA			
VII. HITZA TXAPELKETA			
BENJAMINAK			
Ruiz-Zubeldia	16		
Intxaurren-Goiburu	8		
Gabirondo-Landa	12		
Txoperena-Goikoetxea	16		
Arizmendi-Salaberria	9		
Aizkorbe-Apezetxea	16		
Aranburu-Osa	16		
Txapartegi-Eraso	6		
ALEBINAK			
Usandizaga-Eloa	16		
Zubillaga-Goiburu	8		
Pagola-Noble	9		
Lezea-Tellexea	16		
Exposito-Prados	9		
Altuna-Irazustabarrena	16		
Artola-Artola	16		
Bergantinos-Zubeldia	7		
INFANTILAK			
Egiguren-Murua	18		
Senperena-Aburuza	4		
Zabala-Luzuriaga	1		
Arteaga-Aburuza	18		
Arberas-Gaztañaga	4		
Azpiroz-Oskoz	18		
Altuna-Zabala	9		
Noble-Etxenike	18		
SENIORRAK			
Sukia-E. Galarraga	22		
Apezetxea-Albisu	20		
NAFARROAKO			
HERRIARTEKO TXAPELKETA			
Leitza-Arbizu (4-0). Ligaxka			
ALEBINAK			
A. Alduntzin-Jon Lezea	18		
Nazabal-Goikoetxea	2		
INFANTILAK			
A. Olano-M. Sagastibeltza	18		
Gurrutxarri-Mendinueta	0		
JUBENILAK			
X. Jaunarena-J. Jaunarena	22		
Jaka-Karasatorre	13		
SENIORRAK			
I. Zubillaga-M. Iriarte	22		
Arruti-Agirre	13		
HERRERAKO TXAPELKETA			
Finalerdiak			
KADETEAK			
X. Jaunarena-M. Hernandorena	17		
A. Olano-Tolosa	22		
AÑORGAKO TXAPELKETA			
ALEBINAK			
J. Lezea-Salaberria	18		
-	7		
LIZARRAKO TXAPELKETA			
Finalerdiak			
INFANTILAK			
J. Zubiria-Ander Eskudero	18		
-	9		
NAFAR JOKOAK			
Finalak			
INFANTILAK (3.M)			
J. Goikoetxea-M. Eraso	8		
Erreka B	18		
INFANTILAK (2.M)			
X. Zubiria-L. Galartza	18		
Erreka B	12		
SOKATIRA			
LUR GAINEKO SOKATIRA			
TXAPELKETA, 640 KILOTAN			
BIGARREN JARDUNALDIA			
1. Goiherri A (Erandio)	15 tanto		
2. Mutriku	12 tanto		
3. Areso	9 tanto		
4. Gaztedi (Laukiz)	6 tanto		
5. Getxo	3 tanto		
6. Goiherri B	0 tanto		
SAILKAPEN NAGUSIA			
1. Goiherri A (Erandio)	12 puntu		
2. Mutriku	10 puntu		
3. Areso	7,5 puntu		
4. Gaztedi (Laukiz)	6,5 puntu		
*640 kilotan hirugarren eta azken jardunaldia hilaren 20an, igandean, jokatu da Aian.			



Amazabal pilotalekuan Nafarroako Herriarteko Txapelketaren partidak jokatu dira hilaren 18an. HITZA

VII. Hitza Txapelketa eta Nafarroako Herriartekoa pil-pilean aurkitzen dira

Pilota » Herriartekoan Leitzak finalerdietako partida Baztanen aurka jokatu du; joanekoa hilaren 18an izanen da.

jaminek Albizturren izango dituzte euren partidak; alebinek Alegian, infantilek Bidegoienetan eta seniorrek Tolosan.

Nafarroako Herriartekoa

Nafarroako herri desberdinak bi multzotan banatu zituzten Txapelketa hasieran. Euren artean ligaxka jokatu ostean, finalerdien txanda iritsi da. Bi multzoetako bi herri onenek lortu dute finalerdietarako txartela. Alde batetik, Uhar-

te-Iruñea eta Leitza sailkatu dira. Bestetik, Baztan eta Burlata.

Leitzarrek baztandarren aurka jokatu dituzte finalerdietako partidak. Joaneko partida hilaren 18an izango da, Amazabalen. Ondoren itzulerakoa jokatu dute etxetik at.

Lehia irabaziz gero, Aurrera Pilota Eskolako jokalariek Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu dute Nafarroako Herriarteko Txapelketaren finala.

ASIER IMAZ

VII. Hitza Txapelketa aurrera doa eta maila desberdinetako pilotariak jardunaldi berri bat jokatu dute hilaren 18an, ostiralean. Ben-

» VII. HITZA TXAPELKETA

EKAINAK 18, OSTIRALA

BENJAMINAK, ALBIZTURREN

Elizegi-Zabala
Dorronsoro-Etxeberria
Hernandez-Tolosa
Morales-Zinkunegi
Ruiz-Zubeldia
Txoperena-Goikoetxea
Aizkorbe-Apezetxea
Aranburu-Osa
ALEBINAK, ALEGIAN

Mattin-Eloa
Plazaola-Jauregi
Gorostidi-Ezeiza
Salaberria-Marizkurrena
Usandizaga-Eloa
Lezea-Tellexea
Altuna-Irazustabarrena
Artola-Artola

INFANTILAK, BIDEGOIANEN
Larrea-Peña

Chiapuso-Olarra
Urdanpilleta-Urdanpilleta
Larone-Sarasa
Arberas-Gaztañaga
Arteaga-Aburuza
Azpiroz-Oskoz
Noble-Etxenike

SENIORRAK, TOLOSAN
Apezetxea-K. Galarraga
Senperena-Biain

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Antzerki tailerreko ikasleek emanaldia eskainiko dute

Kultura » Miguel Mihuraren '3 sombreros de copa' lana hilaren 18an taularatuko dute Leidor aretoan.

ASIER IMAZ

Ikastetxeetan urte amaierako festan jaialdia egiten baldin badute, Tolosako Kultur Etxeko antzerki tailerreko kideek ere gauza bera egingo dute. Urtero bezala, gogor aritu diralanean eta Elena Aranbarriren zuzendaritzapean, antzezlan bikain bat taularatuko dute, Miguel Mihuraren *3 sombreros de copa*.

Antzezlan hilaren 18an, ostiralean, eskainiko dute Tolosako Leidor aretoan. Ordua 20:30ean izango dela azpimarratzeko aipatu dute, deialdia kartel batzuetan oker azaltzen delako.

Barne mugak hautsiz

Emanaldia atzo aurkeztu zuten Elena Aranbarrik eta antzerki tailerreko hainbat ikasleek. Zuzendariaren esanetan aurten klasiko batekin ausartu dira. «Lan zoragarri bat taularatuko dugu aurten, klasiko bat. Egia esan beti eman nahi izan dugu urrats hori baina tailerlean 16 lagun gara eta ez da erraza baldintza horietan klasikoekin lan egitea. Hala eta guztiz ere, aurten ausartu gara eta bikain igaro dugu».

Antzerki tailerren ikasturte amaierako emanaldia ohitura bilakatzen ari da azken urteetan. «Gauzak ongi egiten ari direla esan nahi du horrek».

Mihuraren lana antzerki absurduaren baitan kokatzen dute. Elena Aranbarrik ordea, errealitatearekin antzekotasun ugari ikusten ditu lan honetan: «Mihurak lana idatzi zuenean, ezin izan zuten estreinatu. 20 urte beranduago, gu bezalako ikasle talde batek taularatu zuten. Antzerki absurduaren barnean kokatzen dute baina niri ez zait hain absurdua iruditzen. Egoerak humorearekin kontatzen ditu, tristura, samina eta abar estaliz. Gauza batzuk ez dira dibertigarriak baina Mihuraren humore hungarriak inguratzen ditu. Zoragarria da. Tailerreko ikasleek lan hau egitea oso polita da».

Geronimok bost urte daramatza Aranbarri irakaslearekin, Karmenek lau eta Koldok bat. Hirurak «oso gustura» aurkitzen dira antzerki tailerrekin: «Elenak esan duen bezala, eguneroko egoerak aurki ditzakezu Mihuraren lan ho-

» ANTZERKIA

- **Antzezlan.** *3 sombreros de copa*.
- **Norena.** Miguel Mihura.
- **Non.** Leidor aretoan.
- **Noiz.** Ekainaren 18an, ostiralean.
- **Ordua.** 20:30ean.
- **Nork.** Tolosako Kultur Etxeko antzerki tailerra.



Karmen, Koldo, Elena eta Geronimo goian. Behean entseguko une bat. A. IMAZ/HITZA

netan. Gero pertsonaia bakoitzak bere txispa dauka eta batzuetan barrea eragiten baldin badute ere, beste batzuetan ez horrenbeste» azaldu du Mertxek.

Koldo bere buruarekin harrituta agertu zen atzokoan. «Elenarekin egongo ez bagina ez genukeen ezer egingo. Adibidez, lan hau Elena gabe irakurri izan bagenu, beste modu batera ulertuko genukeen,

oso desberdina izango zen. Elenak ikuspuntua zabaldu digu eta gauza bakoitzaren atzean dagoena ulertzen lagundu digu».

Geronimori ez zaio batere erraza egin aurten tokatu zaion pertsonaia. «Hasieran batez ere. Ni ez naizen paper bat tokatu zait eta kosta egin zait. Gero mugak gainditzen hasten zara eta bikain pasatzen duzu. Nire kasuan oso diberti-

garria izan da eta oso gustura nagoela esan nahi dut».

Ikasleen loreei erantzunez, irakasleak ere oso gustura dagoela onartu zuten. «Antzerki tailerren lehen helburua dibertitzea eta barne muga horiek haustea da. Bigarrena ekainean eskaintzen dugun emanaldia da, baina ibilbidea oso garrantzitsua da. Oso gustura nago lortu dugunarekin».

Gaur eta bihar eguraldiarekin kontuz

Natura » Gaur maila horian eta bihar larri jarri du alerta SOS Deiak-ek. Euria erruz botako du ondorengo egunetan.

ERREDAKZIOA

SOS Deiak-ek eskualdeko hainbat udaletxetara oharra bidali zuen atzokoan. Gaur eta bihar euri ugari egingo duela iragarri zuten larrialdi zerbitzuetatik. Ondorioz, eskualdeko ibaiekin erne ibilki behar da. Baita hauen ondotik igarotzen diren errepedeekin ere.

Gaur, alerta horia

SOS Deiak-etik azaldu dutenez, gaur maila horiko egoera bizitu daiteke gurean. «Ez dago herritar



Oria ibaiaren itsura Villabonan, 2009ko urtarrilaren 27an. J. MANOL GARCIA

guztientzako meteorologia arriskurik, nahiz eta jardueraren baterako bai. Maila horian, meteorologia fenomeno ohikoak gertatzen dira, baina arrisksutsuak izan daitezkeenak». Iragarpenen arabera, egun guztian zehar euria egingo du eta 60 l/m² bota ditzake. Bihar berriz, okerrera egingo du eguraldiak.

Bihar, maila larria

Kantauritik etorriko den borras-karen aurrean, etzirako maila larri jarri dute alerta. 80 l/m² euri botako omen du asteazkenean, «zaparrada handiak» nagusituko direlarik. Maila larri jakoko egoera hauek oso gutxitan gertatzen dira urtean zehar. «Kalteak, bereziki sektore batzuetakoak, handiak izaten hasten dira».

Anoetan jai eta txozna batzordeek bilerak egingo dituzte gaur

ERREDAKZIOA

Anoetako Jaiak amaitu berri diren honetan, balantzeak egiteko unea iritsi da eta helburu horrekin bi bilera egingo dituzte gaur bertan.

Lehen oro har Jaien ingurukoa izango da, 18:00etan udaletxean. Bigarrena berriz, Txozna Batzordeak deitu du eta 19:00etan izango da, hau ere udaletxean.

Jai Batzordeko eta Txozna Batzordeko kideek herritar guztiak gaurko batzarretara deitu nahi izan dituzte, «Jaiak eta txoznak nola joan diren aztertze eta hurrengo urtean hobekuntzarik egin behar baldin bada, egiteko».



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Teléfonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoeta/leitza@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leitza: 687 410 118. ibarra/leitza@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza/leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitza/Leitza beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Azoka

■ **Villabona.** Goiz guztian zehar bertako produktuak, arropa, loreak... salgai egongo dira Berdura eta Errebote plazan.

Erakusketa

■ **Tolosa.** *Aluminum* erakusketa Fronton jatetxean, aluminiozko eskulturak eta koadroak.
■ **Hernialde.** Herriko ostatuan ikusgai daude Karmele Pellejerok margotutako koadroak. Hilaren amaierara arte egongo dira.

Hitzaldia

■ **Villabona.** Mintzalaguna egitasmoaren eta euskalduntze-alfabetatze ikastaroak amaierara dela eta, Andoni Egañak hitzaldia eskainiko du ahozko komunikazioaren inguruan Villabonako Subijana etxean 19:00etan.

Deialdiak

■ **Ibarra.** Sanbartolome jaietarako kartel lehiaketa. Ibarra biztanleek parte har dezakete, lanak 22 x 22 cm formatoan (argazkia, marrazkia, pintura) gai librean. 300 euroko saria.
■ **Anoeta.** Aurtengo festen balorazioa egiteko bilera 18:00etan udal batzar aretoan.
■ **Tolosa.** Auggie arropa dendak 1.000 egun betetzen dituela ospatzeko Giorgio Bassmattik kontzertua eskainiko du bertan, ostiralean, 19:30ean.
■ **Berastegi.** II. Lore, balkoi eta baratze txapelketa. Parte hartu nahi dutenek eman dezakete izena, 943 68 30 00 telefono zenbakira deituta edo sebas@berastegi.com helbide elektronikora mezu bat bidalita.
■ **Tolosa.** San Joan festak direla eta, Iturriza Elkartek II. Mus Txapelketa antolatuko du. 4 eta 8 erregeen modalitatean jokatu du parte hartzen dutenek. Bihar bitar-

tean egongo da zabalik izena emateko epea. Interesa duten bikoteek, Iturriza Elkartera hurbildu beharko dute goizeko 10:00etatik 12:00ak bitartean. Txapelketa ekainaren 23an hasiko da 10:30ean.

■ **Tolosa.** Tolosa Beantatuz izenburupean I. Graffiti eta Mural Lehiaketa taldeka ekainaren 18an eta 19an. 20 horma erabiliko dituzte margotzeko. Ekainaren 18an 16:00etan hasiko da lehiaketa eta hurrengo egunean 18:00etan amaituko da. Teknika librean ariko dira dirak, baina guztiek gai bera izango dute ardatz, sua, hain zuzen ere. 17 urtetik gorako edonork hartu ahalko du parte eta izena ematean hormetan eginko bi lanen argazkiak erakutsi beharko dituzte. Gko galerian eman beharko da izena, (garikoitz@gko-gallery.com).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin, Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan iritziaren erantzukizunik.



Aldaba lau haizetara

TOLOSA ● San Antonio eguna ospatzeko bazkari ederra egin zuten herenegun Aldaba auzoan. Mahai inguruan elkartu ziren, auzoko eguna ospatzeaz gain, Aldabako gida aurkezteko aprobetxatu zuten. Urkizuk irekitako bidari egun gutxiarik Bedaiki jarraitu zion, eta orain, urte bete beranduago, Aldabari iritsi zaio garaia. Honela, Tolosako hiru auzoek badute bere gida turistikoa. Egitasmo honen bitartez «Gipuzkoako zein Euskal Herriko txoko ezberdinetako jendea Aldabara gerturatzea» lortu nahi dute. HITZA

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteunetan 09:30-20:30 / Lanurabatean: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

